



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

LARDIZABAL ESKOLA PUBLIKOA

Ikastetxearen kodea:

012287

Data:

2023-06-14





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Lardizabal HLHI Zaldibiako (Gipuzkoa) Dereduko ikastetxe publikoa da, herrian dagoen bakarra. Bertan, HH eta LHko etapak eskaintzen dira, eta une honetan 220 ikasle ditu. Irakasle-taldea, berriz, 25 irakaslez osatua dago. Gure eskolako familiak jatorri eta ezaugarri orotakoak dira baita ISEK maila ezberdinetakoak ere.

Ikastetxearen jardun hezitzailean printzipio eta nortasun-ezaugarri hauek ditugu gidalerrotzat:

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Eskolan hornikuntza teknologikoari dagokionez, 2022-2023. ikasturtera arte era honetan funtzionatu izan da ikastetxean.

2.1.- TRESNERIA (HARDWAREA)

Gure eskolan intranet sarea dugu, kable bidezko internet konexioarekin eta zerbitzariarekin. Nolanahi ere, egunerokotasunean erabiltzen ditugun eduki gehienak hodeian ditugunetik, ezer gutxi erabiltzen da zerbitzaria biltegi digital bezala

Irakasle gelan hainbat mahaiko ordenagailu daude irakasleen lanerako.

Ikasgelan bakoitzean (HH eta LHko geletan, musika gelan eta ingeleseko gelan), liburutegian eta laguntza gelan mahaiko ordenagailu bana daude. Horrez gain, ikasgela gehienetan panel interaktiboak eta arbel digitalak daude. Azken ikasturteetan pixkanaka arbel digitalak panel interaktiboengatik ordezkatzeko ari dira.

LH 4-5-6ko ikasle bakoitzak Hezkuntza Sailak emandako ordenagailu eramangarri txikiak dituzte gelan erabiltzeko. Aipatutako gailuez gain, eskolan beste 10-12 ordenagailu daude (batzuk eramangarriak eta beste batzuk mahai gainekoak) beharren arabera espazio ezberdinetan kokatzeko. Konexio ona duen wifi sarea dago ikastetxe osoan.

MANTENUA: Tresneriaren eta oinarrizko softwarearen mantenuan beharrezkoa bada Hezkuntza Sailaren CAU zerbitzura bideratzen da.

2.2. APLIKAZIOAK ETA PROGRAMAK (SOFTWAREA)

Ikastetxeko kudeaketa zein ikaskuntza prozesuan lagungarriak dira ondorengo aplikazio eta programa hauek:

IKASKUNTZA INGURUNE BIRTUALAK (IIB)

Googleren aplikazioak (Workspace) LHko goi zikloan erabiltzen dira lan egiteko moduaren osagarri gisa. Hauek dira gehien erabiltzen ditugunak:

Google Drive: gelako jardueran lanak kudeatzeko, lan kooperatiboa burutzeko, e.a. Ikasleek nahiz irakasleek bere biltegi digital pertsonala bertan dute.

Classroom: gelako lan jarduera batzuk kudeatzeko
Google aurkezpenak: gaiarekin loturiko aurkezpenak egiteko euskarri gisa
Google Docs: dokumentuak idatzi, partekatu eta lan taldean jarduteko.
Beharren arabera Googleko beste tresna batzuk ere erabiltzen dira.

LHko 2-3-4-5-6 mailatan Matific matematikako programa erabiltzen da, baita Txanela eta BagaBigako liburu digitalak LHko maila guztietan ere.

Googleren aplikazioez gain, onlineko hainbat erreminta digital erabiltzen dira hezkuntza jardunean (Hitziki, LifeWorksheets, online jolasak, mapa interaktiboak...)

INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA:

Hezkuntza-komunitatearekin komunikazioa, oro har, Gmailez eta Telegramez egin izan da. Azken hori familiekin komunikatzeko erabiltzen da honako arrazoiengatik: batetik, mezularitza zerbitzu bezala erabiltzen da mezuak euskara hutsean bidali eta hauek nahi den hizkuntzara itzultzeko aukera ematen duelarik; eta, bestetik, bileretan aldebereko itzulpegintza egiteko tresna gisa erabiltzen da.

Ikastetxeak webgune publiko bat du (<https://lardizabal.eus/>) helburu hauetarako: ikastetxeko oinarrizko informazioa helarazteko (proiektuak, zerbitzuak, antolaketa...) eta eguneroko martxaren berri emateko.

DOKUMENTU-KUDEAKETA:

Ikastetxeko informazio orokorra eta dokumentazio garrantzitsu guztia ikastetxeko sarean eta Driveko unitate partekatuetan gordeta dago hezkuntza-komunitateko partaideen esku, bakoitzak eskuragarritasun ezberdina duelarik. Irakasleek eta ikasleek egunerokoan behar dituzten eduki digital propioak Driven dituzte.

KUDEAKETA AKADEMIKOA:

Kudeaketa akademiko administratiboa Hezkuntza Sailaren aplikazioetatik eta Drivetik egiten da. Irakasleen ebaluazio-txostenak

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Ikastetxearen digitalizazio prozesuan iaiko ikasturtean aurrerapauso garrantzitsuak ematen hasi ginen. Horrela ba, 2021-22 ikasturtean, SARE HEZKUNTZA GELAN proiektua martxan jarri zen eta horri esker heldutasun digitaleko 2. maila lortu zen. Mundua aldatzen ari da etengabe, eta horrekin batera ikastetxeak. Ez, ordea, erritmo berean. Hori dela eta, gure ikasleak mundu digital honetara era autonomoan eta egokian egokitzeko erramintak sustatzeko unea iritsi dela ohartu gara. Eskolek erantzun egin behar diete gizartetik heltzen zaizkien eskaerei. Era honetan lortuko dugu teknologia horrek ekar ditzakeen abantaila etekina ateratzen eta erabilera desegokien kalteetatik ohartarazten. IPDaren bitartez eskolako errealitatean azterketa sakona egin eta etorkizuneko ekintza plana diseinatu ahal izango dugu. Hausnarketa honek oinarrian ikastetxeko antolamendua eta irakas-ikas prozesua izango ditu. Hauek dira IPDarekin erdietsi nahi diren funtsezko xedeak:

- Ikastetxearen egoera ebaluatzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilerari dagokionez.
- Plan Digital batek hezkuntza-erakundearen estrategia digitala planifikatzeko duen potentziala aitortzea.
- Proiektu Digital iraunkor eta dinamiko bat sortzea; garai bakoitzak ekartzen dituen berrikuntza digitaletara egokitzeko erraminta baliogarria izan dadin.
- Digitalki konpetentzia izango den eta etengabeko ikaskuntza prozesuan murgilduta egongo den erakundea izatea.
- Hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa lortzea ikastetxeko kultura digitala garatzeko.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Gure ikastetxearen Proiektu Digitalak honakoak jasoko ditu:

Gaur egungo egoera: autoebaluazioa eta hausnarketaren bidez egoeraren analisia egingo da, zenbait esparrutan (DigCompOrg markoa) ikastetxearen digitalizazio maila zein den zehaztuz.

Ikastetxeak nora iritsi nahi duen: gaur egungo egoeratik abiatuz, epe ertainerako jomugak eta datorren ikasturterako helburu zehatzak definituko dira.

Bidea marraztu: markatu diren helburuak lortzeko jarraibidea zehaztuko da, estrategiak eta ekintzak definituz.

Plangintzaren etengabeko balorazioa: Proiektu Digitala ikastetxeko proiektu estrategiko iraunkorra izango denez, aldizkako ebaluaketa bat finkatuko da.

Prozesu hori guztia bideratzeko lan-taldea zenbait irakaslekin osatzen dute.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Une honetan, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua eguneratzen ari gara. Bertan, ildo nagusiak eta metodologikoak definituko dira eta hauek zuzenki lotuak egongo dira IPDarekin. Halaber, ikastetxeko proiektu digitaleko helburuak Ikastetxeko Urteko Planeari txertatuko dira.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.
SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Ikastetxean IKTak gure egunerokotasunean txertatuta izan arren, estrategia digital baten gabezia dugu. Era berean, ikastetxean ez dago IKTen erabileraren inguruko protokolo adostu edo idatzirik ez ikasleek egiten duten erabileraren inguruan ezta irakasleek egiten duten erabileraren inguruan ere. Amaitzeko, ikastetxeko komunitatea software librearen inguruko gogoetan murgilduta dago, eta horren aldeko hautua egitea aztertzen ari da.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)
1.1 Plan digitalaren gabezia.
1.2. Egile-eskubideak eta erabilera-lizentzien inguruko ezagutza eza.
2.1. Ez dugu online baliabide eta pantailen inguruko protokolo adostu edo idatzirik.
2.2. Hezkuntza-baliabide irekiak ez ditugu ez ezagutzen ezta erabiltzen ditut
2.3. Ez ditugu teknologia digitalak erabiltzen gure irakaskuntza-metodoa ikasle bakoitzaren premietara egokitzeko.
3.1. Ez ditugu EPPak egiten teknologia digitalak helburu pedagogikoekin erabiltzeari buruz.
5.1. Ez daukagu maila bakoitzean ikasleen irteera profila zehaztuta kompetentzia digitalari dagokionean.
5.2. Gure ikastetxean, ikasleek Interneten era arduratsuan jokatzeko ikasteko ez dago estrategiarik.
5.3. Gure ikastetxean, ikasleek Interneten era arduratsuan jokatzeko dutela uste dute.
6.1. Ikastetxean ez dugu eztabaidatzen eta idatzita jasotzen teknologia berriekin ikasi eta irakastearen abantaila eta desabantaila buruzko gogoetak.

+ Lerro bat gehitu

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)
1.3. Ez dugu denbora nahikorik teknologia digitalen bidez gure irakaskuntza hobetzeko.
4.1. Ez dugu ikasleen ebaluazioa digitalki egiteko baliabide zehatzik jasotzen administrazioetik.
5.4. Gizartean IKTen gehiegizko erabilera.
7.1. Gure ikastetxean ez da erraztasunik eman software librearekin lan egiteko.

+ Lerro bat gehitu

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)
1.4. Gure zuzendaritza-taldearen babesa dut teknologia digitalen bidezko irakasteko modu berriak frogatzerakoan.
2.4. Hezkuntza-komunitatearekin komunikatzeko teknologia digitalak erabiltzen dira.
6.2. Gure ikastetxean, teknologia digitalak erabiltzen ditugu beste erakundeekin elkarlanean aritzeko.

+ Lerro bat gehitu

Aukerak (kanpo-faktoreak)
7.1. Gure ikastetxean, irakaskuntzan erabil ditzakedan gailu digitalak daude.
7.2. Gure ikastetxean, Interneterako sarbidea ematen da irakaskuntzan eta ikaskuntzan erabiltzeko.
7.3. Gure ikastetxeak laguntza tekniko du teknologia digitalekin suertatzen diren arazoak konpontzeko.

+ Lerro bat gehitu

Autoebaluzioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Ikastetxean dagoeneko erabiltzen dira hezkuntza-komunitatearekin komunikatzeko teknologia digitalak. Zehazki Telegram aplikazioaren erabilera orokortua da bai barne komunikazioan baita kanpo komunikazioan ere 2022-2023 ikasturteaz geroztik. Telegram aplikazioak ondorengoak ahalbidetu dizkigu: gela bileretan aldebereko itzulpena, familiekiko komunikazioan euskarazko mezu idatziak norberak bere hizkuntzara itzultzeko aukera eta difusio kanalen erabilera (bai gelakoa baita eskolako ohar orokorrak helaraztekoa), kasu. Era berean, Telegrama mugikorretan instalatutako aplikazioa izateak azkartasuna eta erosotasuna ematen ditu. Bestetik, teknologia digitalak erabiltzen ditugu beste erakundeekin elkarlanean aritzerakoan. Beraz, erabilera hauek sistematizatzea eta guztiz orokortzeak aukerak areagotuko dizkigu ikastetxe modura. Era berean, irekita jarraitzen dugu Telegramen gisako aplikazioetara.

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

Oro har, hiru alderdi nagusi hauetan ditugu ahuleziak: estrategia digital adostu baten gabezia, online baliabide eta pantailen inguruko protokolo adostu edo idatzirik eza eta maila bakoitzean ikasleen irteera profila ez izatea zehaztuta kompetentzia digitalari dagokionean.

Hori dela eta, hurrengo ikasturterako lehentasuna estrategia digitala adostea izango da.

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

Hezkuntza-komunitatearekin komunikatzeko teknologia digitalak erabiltzen dira baita beste erakundeekin elkarlanean aritzerakoan ere. Erabilera hori geroz eta eraginkorragoa, kontzienteagoa eta kritikoagoa izateko, baliabide horiei buruzko formakuntza jasoko da. Eta horiek ahal den heinean software librekoak izateko urratsak ematen hasiko gara.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

AMIAN agertutako ahulezia eta mehatxuei aurre egiteko, batetik, hurrengo ikasturterako lehentasuna estrategia digitala adostea izango da; bestetik, berriz, teknologia digitalen bidez gure irakaskuntza hobetzeko eta software librearen aukerak ezagutzeko formakuntza areagotu beharko genuke.

3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
Irakas-ikas prozesuetan gailu teknologikoen integrazioa eta erabilera didaktikoa egituratzeko plan bat diseinatzea eta implementatzea, mailaz-maila garatu beharreko gaitasun digitalak ondo zehaztuz, ikasle guztien kompetentzia digitalaren garapen egokia lortzen dela ziurtatzeko.		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza	2023-10-02	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	Bai
	Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Digitalizazio batzordea antolatzea.	Gela bat eta ordutegia	Zuzendaritza	2023-10-02	
Programazioetan kompetentzia digitalari lotutako jarduerak, baliabideak eta ebaluatzeko irizpideak jasotzea.	Programazioak eta ordutegia	Digitalizazio batzordea	2024-06-30	
Datuen babesa hezkuntza-eremuari dagokion protokoloa osatzea.	D.B.H.E dokumentua, ordutegia, aholkularitza, AJA eta irakasle taldea	Digitalizazio batzordea	2023-10-02	

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua		
Ikastetxean baliabide didaktiko digital irekiak ekoizteko eta erabiltzeko mekanismoak artikulatzea, errekurtso horiek antolatzeko eta sailkatzeko espazioak sortuz eta erabiltzeko prozedurak zehatzuz, zentroan berrikuntza pedagogikoa bultzatze		
Deskriptorea	Epea	
II 2.4 Eredu pedagogikoak hedatzen dira	2024-06-03	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Ehunekotan	%100
	Ehunekotan	%100

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikas-egoeretan baliabide digitalak txertatzea.	Ikas-egoerak eta ordutegia	B.P.	2024-06-30	
Programazioetan kompetentzia digitalari lotutako jarduerak, baliabideak eta ebaluatzeko irizpideak jasotzea.	Programazioak eta ordutegiak	B.P.	2024-06-30	

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

GP Garapen profesionala

Helburua	
Irakasle berrientzako harrera plan bat zehaztea, mentoretza eta laguntza sistema bat artikulatuz, teknologia digitalen erabileran eta horien implementazio didaktikoan esperientzia urria duten irakasleak trebatu daitezzen.	

Deskriptorea	Epea
GP 1.1 Agerikoa da EGPren aldeko konpromisoa	2024-06-30

Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	BAI
	Bai/Ez	BAI

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasle taldeari konpetentzia digitaleko B1 maila lortzeko aukera eskaintzea.	PREST GARA	Zuzendaritza	2023-09-30	
Digitalizazio batzordean harrera plan bat lantzea eta implementatzea (IKT GIDA SORTZEA).	Orduategia eta IKT gida	D.B.	2023-09-30	

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua		
Programazio didaktiko guztietan konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak zehaztea, ikasleek lortzeko zentroak ezarri duen mailaz-mailako garapena erreferentzia delarik, ikasle bakoitzak egiten duen aurrerapena neurtzeko.		
Deskriptorea	Epea	
EJ 3.1 Ikaskuntzaren analisia estrategikotzat hartzen da	2024-06-30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Ehunekotan	
	Ehunekotan	

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Mailaz-maila eta arloz-arlo, ikasleek lortu beharreko Konpetentzia Digitalaren garapen maila zehaztea.	Programazioak eta Konpetentzia Digitalaren errubrika	B.P eta D.B.	2024-06-30	
Curriculum proiektuan eta programazioetan konpetentzia digitalari lotutako jarduerak, baliabideak eta ebaluatzeko irizpideak jasotzea.	Programazioak	B.P eta D.B.	2024-06-30	

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua		
Ikastetxean baliabide didaktiko digital irekiak ekoizteko eta erabiltzeko mekanismoak artikulatzea, zentroan berrikuntza pedagogikoa bultzatze aldera. (irakaskuntza eta ikaskuntza esparruan ere agertzen da helburu posible hau)		
Deskriptorea	Epea	
EC 1.5 Hezkuntza baliabide irekiak sustatzen eta erabiltzen dira	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Ehunekotan	2024/06/30

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Mailaz-maila eta arloz-arlo, ikasleek lortu beharreko Konpetentzia Digitalaren garapen maila zehaztea	Programazioak eta Konpetentzia Digitalaren errubrika	B.P eta D.B.	2024/06/30	
Curriculum proiektuan eta programazioetan konpetentzia digitalari lotutako jarduerak, baliabideak eta ebaluatzeko irizpideak jasotzea.	Programazioak eta Konpetentzia Digitalaren errubrika	B.P eta D.B.	2024/06/30	
Baliabideen biltegia	Programazioak eta Konpetentzia Digitalaren errubrika	B.P eta D.B.	2024/06/30	

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua		
Irakasle berrientzako harrera plan bat zehaztea, mentoretza eta laguntza sistema bat artikulatuz, teknologia digitalen erabileran eta horien implementazio didaktikoan esperientzia urria duten irakasleak trebatzeko. (Garapen profesionala esparruan ere agertzen da helburu posible hau)		
Deskriptorea	Epea	
EN 1.5 Barne-lankidetzak eta ezagutzak trukatzeko espero da	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Digitalizazio batzordean harrera plan bat lantzea eta implementatzea.	Orduategia eta IKT gida	B.D	2023-09-30	

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

AZ Azpiegiturak

Helburua		
Intzidentzia teknikoak konpontzeko, gailuen mantenua kudeatzeko eta jasangarritasuna bermatzeko plan bat ezartzea, aldian behin ebaluatuko den protokolo bat zehaztuz, ikastetxeko baliabide teknologikoak beti operatibo eta eguneratuta daudela bermatzeko		
Deskriptorea	Epea	
AZ 2.6 Agerikoak dira laguntza teknikoa eta erabiltzaileari arreta ematea	2023/09/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	2023/09/30
	Bai/Ez	2023/09/30

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Gailuen mantenua kudeatzeko protokoloa sortzea eta garatzea.	IKT gida	B.D	2023/09/30	
Arduradunak izendatzea.	Ordu-tegiak	Zuzendaritza	2023/09/30	

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

Deskriptorea	Epea

Adierazlea	Mota	Helmuga

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Irakas-ikas prozesuetan gailu teknologikoen integrazioa eta erabilera didaktikoa egituratzeko plan bat diseinatzea eta inplementatzea, mailaz-maila garatu beharreko gaitasun digitalak ondo zehatzuz, ikasle guztien konpetentzia digitalaren garapen egokia lortzen dela ziurtatzeko.	23-10-02	LG 1.3 A1 LG 1.3 A3	Zuzendaritza eta digitalizazio batzordea		

II	Ikastetxean baliabide didaktiko digital irekiak ekoizteko eta erabiltzeko mekanismoak artikulatzea, errekurtsio horiek antolatzeke eta sailkatzeke espazioak sortuz eta erabiltzeko prozedurak zehaztuz, zentroan berrikuntza pedagogikoa bultzatze aldera.	24-06-30	II 2.4 A1 II 2.4 A2	Batzorde pedagogikoa		
GP	Irakasle berrientzako harrera plan bat zehaztea, mentoretza eta laguntza sistema bat artikulatuz, teknologia digitalen erabileran eta horien inplementazio didaktikoan esperientzia urria duten irakasleak trebatu daitezten.	24-06-30	GP 1.1	Zuzendaritza eta digitalizazio batzordea		

GP	Ikastetxeko irakasleen eta familien konpetentzia digitala garatzeko estrategia bat diseinatzea, zentroak definituko duen irakasleen gutxieneko profil komun bat ezarri eta autoebaluazioa bideratzeko tresnak eskainiz, trebakuntza beharrak identifikatzeko eta formazio planak antolatzeke.	23-09-30	GP 1.3	Zuzendaritza		
EJ	Programazio didaktiko guztietan konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak zehaztea, ikasleek lortzeko zentroak ezarri duen mailaz-mailako garapena erreferentzia delarik, ikasle bakoitzak egiten duen aurrerapena neurtzeko.	24-06-30	EJ 3.1	B.P eta D.B.		

EC	Ikastetxean baliabide didaktiko digital irekiak ekoizteko eta erabiltzeko mekanismoak artikulatzea, zentroan berrikuntza pedagogikoa bultzatze aldera. (Irakaskuntza eta ikaskuntza esparruan ere agertzen da helburu posible hau)	24-06-30	EC 1.5	B.P eta D.B.		
EN	Irakasle berrientzako harrera plan bat zehaztea, mentoretza eta laguntza sistema bat artikulatuz, teknologia digitalen erabileran eta horien inplementazio didaktikoan esperientzia urria duten irakasleak trebatzeko. (Garapen profesionala esparruan ere agertzen da helburu posible hau)	2024/06/30	EN 1.5	B.D		

EN	Ikastetxean ezagutza, informazioa eta baliabide digitalak partekatze plan bat ezartzea, horretarako beharrezkoak diren plataforma bat antolatuz eta arduradunak edota dinamizatzaileak izendatuz.	2024/06/30	EN 1.1	B.D		
EN	Ikastetxeko webgunearen erabilera hobetzea, garrantzitsuak diren proiektu, plan eta ekimenei buruzko baliabideak eta dokumentazioa bertan eskuragarri jarri, hezkuntza Komunitatearekiko bi noranzkoko komunikazioa egoki bideratzeko.	2023/09/30	EN 2.1	B.D.		

AZ	Intzidentzia teknikoak konpontzeko, gailuen mantenua kudeatzeko eta jasangarritasuna bermatzeko plan bat ezartzea, aldi behin ebaluatuko den protokolo bat zehaztuz, ikastetxeko baliabide teknologikoak beti operatibo eta eguneratuta daudela bermatzeko.	2023/09/30	AZ 2.6	B.D eta zuzendaritza		
AZ	Irakasle eta ikasle guztien teknologiarako sarbidea bermatzea, mailegu eta laguntza protokolo bat ezarri eta aholkularitza pedagogikoa eskainiz, arrakala digitala arintze aldera.	2023/12/23	AZ 2.5	Aholkularia, B.D eta zuzendaritza		
IB						